

Bihurkari eta elkarkari iragangaitzak inpersonal eta inkoatiboekiko konparazioan

Kristina Bilbao*, Ane Berro** eta Beatriz Fernández*
UPV/EHU*, UD**

Lan honetan egitura bihurkari eta elkarkari iragangaitzak aztertuko ditugu inpersonal eta inkoatiboekiko konparazioan. Egitura horiek guztiek itxura bera dute kasuari, komuntzadurari eta aditz laguntzailearen txandakatzeari dagokienez, baina ez dute jokabide sintaktiko bera. Lanean zehar, egitura inpersonal eta inkoatiboak ezaugarritzeko literaturan baliatu diren irizpideak eramango ditugu bihurkari eta elkarkari iragangaitzen azterketara. Erakutsiko dugunez, bihurkari eta elkarkari iragangaitzek kanpo-argumentu bat dutela dirudi, inpersonalak bezalaxe (eta inkoatiboak ez bezala). Alabaina, beste ezaugarri batzuetan, hala nola inpersonalen ageriko argumentuaren pertsona-murritzapenean, bihurkari eta elkarkariak ez dute inpersonalekin bat egiten eta inkoatiboen antzeko jokabidea erakusten dute. Azkenik, inpersonal eta inkoatiboetan ez bezala, egitura bihurkari eta elkarkari iragangaitzetan ageriko argumentu bakarrak kanpo-argumentua dirudiela erakusten duten ebidentziak jasoko ditugu.

GAKO-HITZAK: Bihurkariak · Elkarkariak · Inpersonalak · Inkoatiboak · Iragangaiztasuna.

Intransitive reflexives and reciprocals in comparison to impersonals and inchoatives

In this paper we explore intransitive reflexive and reciprocal constructions and compare them to impersonals and inchoatives. All these constructions have the same surface morphology in Basque: their sole argument is marked with absolutive case and agreement and the auxiliary selected is *izan* 'be'. Nevertheless, they have different syntactic distribution. In this paper, we apply the tests that are used to characterize impersonals and inchoatives—and some others—to intransitive reflexives and reciprocals. Some of these tests suggest that intransitive reflexives and reciprocals have an external argument, patterning in this respect with impersonals and not with inchoatives. Nevertheless, in other contexts, reflexives and reciprocals depart from impersonals and behave like inchoatives. For instance, the overt absolutive argument is not subject to the person restriction observed in impersonal constructions. Finally, unlike in impersonals and inchoatives, the overt absolutive argument of reflexives and reciprocals behaves in certain tests like an external argument.

KEY WORDS: Reflexives · Reciprocals · Impersonals · Inchoatives · Intransitivity.
<https://doi.org/10.26876/uztaro.5067> *Jasotze-data:* 2023-05-15 *Onartze-data:* 2023-10-12

1. Atarikoa¹

Munduko hizkuntza askotan, egitura bihurkari eta elkarkariek hainbat ezaugarri morfologiko partekatzen dituzte beste egitura mota batzuekin, hala nola egitura inkoatiboekin, erdiko egiturekin eta egitura pasibo eta antipasiboekin. Hala, ikuspuntu tipologikotik, badirudi ohikoa dela aipaturiko egituren arteko sinkretismoa, hots, egiturok itxura morfologiko bera erakustea (Bahrt, 2021; Oikonomou eta Alexiadou, 2022). Esate baterako, gure inguruko hizkuntzei begira, hizkuntza erromantzeak dira horren erakusgarri argia (adibidez frantseserako, ikus Zribi-Hertz, 1982).

Euskaraz ere antzera gertatzen dela dirudi, (1)eko adibideak konparatuz gero ikus daitekeenez: askotariko egiturak izan arren, itxura bera dute. Lan honetan, euskarazko egitura bihurkari iragangaitzak (1a) eta elkarkari iragangaitzak (1b) ezaugarritu eta tipifikatu nahi ditugu inpertsonal (1c) eta inkoatiboekiko (1d) konparazioan.

- (1) a. Jon ispiluan ikusi da.
- b. Lagunak besarkatu dira.
- c. Sagarrak bildu dira.
- d. Itsasontzia hondoratu da.

Horretarako, inpertsonal eta inkoatiboen literaturan erabili diren irizpideez baliatuko gara, egitura horiek sakon aztertu izan baitira. Jakintza horretatik abiatuta, gainerako bi egiturekiko antzekotasun eta ezberdintasunak zein diren erabakiko dugu, ezer gutxi baitakigu bihurkari eta elkarkari iragangaitzen egitura sintaktikoaz. Hala, bihurkari eta elkarkari iragangaitzak ezaugarritu ez ezik, (euskararen) iragangaiztasunaren irudi oso eta argiagotzat ere izango dugu lan honi esker.

(1)eko egiturek, guztiak iragangaitzak direnez, zenbait ezaugarri partekatzen dituzte². Lehenik eta behin, agerian argumentu bakarra erakusten dute eta argumentu horrek absolutibo kasua jasotzen du; bigarrenik, hautatzen den aditz laguntzailea *izan* da; eta hirugarren eta azkenik, absolutibo-komunztadura erakusten du aditz laguntzaileak absolutibo kasuaz markatutako argumentuarekin. Hortaz, kasu, komunztadura eta aditz laguntzailearen txandakatzeari begira, behintzat, itxura berekoak dira goiko egiturak. Dena den, itxura bera izan arren, badituzte desberdintasunak ere. Inkoatibo eta inpertsonalei dagokienez, hizkuntzan orokortuak dauden egiturak dira, eta ez dagozkie, beraz, hizkera jakinei. Bihurkari eta elkarkari iragangaitzak, aldiz, ez dira egitura arruntak, nahiko bazterrekoak baino, eta ez dira euskal gramatika arauemailetan onartzen euskara estandarretarako. Hala ere, gero eta ohikoagoak bihurtzen ari dira azken aldiak, bereziki lagun arteko hizkeran eta ahozkoan batez ere. Are gehiago, idatzizkoa formala ez denean ere jaso daitezke,

1. Lan honen hiru egileok Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso dugu IT1439-22 ikerketa-proiektuaren bidez. Horrez gain, lan honen lehen egileak Espainiako Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioaren dirulaguntza jaso du (FPU22/01851).

2. Lan honetatik aparte utziko ditugu beste egitura iragangaitz batzuk, hala nola pasiboak, erdikoak edo antipasiboak. Inpertsonalen, pasiboen eta erdikoaren arteko konparaziorako, ikus Fernández eta Berro (2021); antipasiboetarako, berriz, Zúñiga eta Fernández (2021).

hala nola sare sozialetan. Hortaz, (1a) eta (1b) egiturek aldakortasun diafasikoa erakusten dute, (1c) eta (1d) egiturek ez bezala³.

Beste alde batetik, egitura horiek ordain iragankorra dute: (1a) bihurkari iragangaitzaren eta (1b) elkarkari iragangaitzaren ordain iragankorrak dira (2a) eta (2b), hurrenez hurren; (1c) inbertsonalarekin harremanetan jar daitekeen egitura iragankorra da (2c); eta azkenik, (1d) inkoatiboaren aldaera arazlea da (2d).

- (2) a. Jonek bere burua ikusi du ispiluan.
- b. Lagunek elkar besarkatu dute.
- c. Jonek sagarrak bildu ditu.
- d. Jonek itsasontzia hondoratu du.

Begi-bistakoa da, beraz, iragangaiztasunari dagokionez, (1) adibideak elkarren antzekoak direla, eta printzipioz, aurreteorikoki besterik ez bada, (2)ko egitura iragankorrekiko harremanetan daudela ere esan genezake. Esate baterako, egitura bihurkari eta elkarkariak ageriko anafora bat izan ohi dute —*bere burua* anafora bihurkaria (2a)n eta *elkar* anafora elkarkaria (2b)n— eta, hortaz, egitura iragankor gisa ageri dira nagusiki, nahiz eta egitura iragangaitz gisa ere —(1a) eta (1b)— erabil daitezkeen. Beste alde batetik, *bildu* aditzak izatez iragankorra da eta (2c) bezalakoxe egitura iragankor batean agertzea espero dugu, nahiz eta inbertsonalean (1c) ere ager daitekeen. Bestalde, *hondoratu* aditzak inkoatibo/arazle alternantzia parte hartzen duenez, aldaera inkoatiboan (1d) zein aldaera arazlean (2d) azal daiteke.

Alabaina, (1)eko egituren itxurazko batasunak aniztasun sintaktikoa ezkututzen du. Euskaraz (1c,d)ko egiturak zein bere aldetik aztertu izan dira: batetik inbertsonalak (1c) (Rodet, 1992; Ortiz de Urbina, 2003; de Rijk, 2008, 279-280. or.; Rezac, 2009, 2016; Fernández eta Berro, 2021; Berro, Odria eta Fernández, 2022; Odria, Berro eta Fernández, 2022); eta bestetik (1d) bezalako inkoatiboak eta beren ordain arazleak (2d) (Oihartzabal, 2003a; Ormazabal, 2008; Berro, Oihartzabal eta Fernández, 2018). Alabaina, badira egitura bien arteko konparazioa egiten duten lanak (Berro eta Fernández, 2019; Fernández eta Berro, 2021), eta erakutsi dutenez, egitura biek, morfologian bat egin arren, ezberdintasun sintaktiko esanguratsuak dituzte. Lan honetan, ezberdintasun horiek zein diren azalduko dugu laburki geroago egitura bihurkari eta elkarkari iragangaitzekin konparatu ahal izateko.

Bestalde, bihurkari eta elkarkari iragangaitzak batera aipatu eta aztertu izan dira, aztertu diren apurrean (Artiagoitia, 2003; Etxepare, 2003a; Urrutia, Goitia eta Artiagoitia, 2018), nahiz eta badirudien bakoitzak bere azterbide beregaina behar duela, hala nola Bilbaorena (2022a) elkarkari iragangaitzetarako. Lan horietan, baina, ez dira kontuan hartu alde aurretik inbertsonal eta inkoatiboak, besteak beste, ezaugarritzeko erabili diren irizpideak, eta hori da, hain zuzen, guk

3. Lan honetako datuen iturriak askotarikoak dira: lehenik eta behin, literaturan jasotako datuak daude eta, hala denean, nondik jaso diren adierazi dugu egilearen eta lanaren edo aldizkariaren aipamena eginez; bigarrenik, egileon onargarritasun-iritziak baliatu ditugu kasu gehienetan beste hitzun batzuen iritziez lagundurik; hirugarren eta azkenik, bihurkari eta elkarkari iragangaitzei dagozkien datuetarako, batetik, egileotako baten onargarritasun-iritziak izan ditugu kontuan eta, bestetik, ahoz entzun zein idatziz irakurri ditugunak (kasu horietan, parentesi artean eman ditugu hiztunaren inzialak eta lekukotasuna jaso zen data).

lan honetan egin nahi duguna, hots, irizpide horiek eta beste irizpide berri batzuk kontuan hartuta, bihurkari eta elkarkari iragangaitzek inperpersonal eta inkoatiboekin dituzten antzekotasunak eta ezberdintasunak zehaztu. Hala, segida emango diogu askotariko egitura iragangaitzak eztabaidagai izan dituen gure beste lan bati (Bilbao, Berro eta Fernández, 2022), iragangaiztasunaren nondik norakoak hobeto ulertzeko.

Lan honek honako egitura hau izango du. 2. atalean, egitura inperpersonalen eta inkoatiboen arteko konparazioa egingo dugu literaturan arakatu diren zenbait ezaugarritan oinarrituz. 3. atalean, ezaugarri berak (eta beste batzuk) baliatuko ditugu bihurkari eta elkarkari iragangaitzak tipifikatzeko. Azkenik (4. atala), ondorio nagusiak laburbilduko ditugu eta gerora begirakoak eztabaidatuko ditugu.

2. Inperpersonalak eta inkoatiboak konparatzen

Gure aurreko zenbait lanetan aztergai izan ditugu egitura inperpersonalak (Fernández eta Berro, 2021; Berro eta beste, 2022; Odria eta beste, 2022) nahiz inkoatibo/arazleak (Berro eta beste 2018), eta inperpersonalen eta inkoatiboen arteko konparazioaren hasikinak jaso genituen, baita Berro eta Fernández (2019) lanean ere. Lan horietan zein beste batzuetan oinarrituz, inperpersonalei eta inkoatiboek dagozkien ezaugarriak laburbilduko ditugu jarraian, lehengo lanetatik edanez (xehetasunetarako, jo lan horietara). Hori eginda, eskura izango ditugu bihurkari eta elkarkari iragangaitzak ezaugarritzeko behar diren irizpideak.

Egitura inperpersonalak behar bezala uler daitezten, kontuan hartu behar da morfologikoki argumentu bakarra izan arren, hots, barne-argumentua, inplizituki beste argumentu bat ere badagoela, edo horixe da behintzat gure ustea egitura horri dagokionez. Hala bada, orduan, (3a) egituran, itxura morfologikoak egitura iragangaitz bat (eta, hortaz, argumentu bakarrekoa) dugula pentsarazi arren, argumentu inplizitu bat ere badago eta argumentu hori kanpo-argumentua da. Hala, (3b) bezalako egitura baten irakurketa luke (3a) inperpersonalak⁴. Hori, baina, ezin daiteke (3c) egitura inkoatiboaz esan: horrek argumentu bakarra du agerian eta ezkutuan bat ere ez. Hots, inperpersonalak (3a) eta inkoatiboak (3c) besteak beste, bereizten dituen da lehenak kanpo-argumentu inplizitu bat duela eta inkoatiboak, aldiz, ez. Kontuan izan, inkoatiboari kanpo-argumenturik gaineratuz gero, orduan, kideko aldaera arazlea (hots, iragankorra) dugula (3d).

- (3) a. Sagarrak bildu dira.
- b. (Norbaitek/Jendeak) sagarrak bildu ditu.
- c. Itsasontzia hondoratu da.
- d. Jonek itsasontzia hondoratu du.

Egitura inperpersonalaren kanpo-argumentu inplizituaren izaeraz luze eta zabal eztabaidatu dugu gure beste lan batzuetan, eta ez da hori egitea gure oraingo asmoa. Alabaina, literaturan iradoki da kanpo-argumentu inplizitua gizakia dela, eta

4. Inperpersonalen subjektuak interpretazio arbitrarioa du eta, testuinguruaren arabera, irakurketa existentziala edo generikoa izan dezake. Horregatik, (3b) adibidean, subjektua *norbaitek* ala *jendeak* izan daitekeela adierazi dugu, alegia, irakurketa existentziala edo generikoa, hurrenez hurren, duen subjektua izan daitekeela.

ezaugarri hori kontuan hartu nahi genuke orain gainerako egiturekin konparatzeko (Ortiz de Urbina, 1989; Rodet, 1992; Berro eta beste, 2022; Odria eta beste, 2022). Hala, (4a)ko egitura inbertsonalean ezin daiteke interpretatu enborrak ekarri dituen bizigabea denik, hala nola ura edo haizea. Aldiz, egitura iragankorra bada (4b), kanpo-argumentua bizidun zein bizigabea izan daiteke —(3c) bezalako egitura inkoatibo batean ez dago argumentu inpliziturik eta, hortaz, nekez eztabaidatu daiteke nolakoa litzatekeen balizko argumentua—.

- (4) a. Enbor horiek honaino ekarri dira.
[Langileak/*urak/*haizeak ekarri ditu enbor horiek honaino]
b. Urak/haizeak enbor horiek honaino ekarri ditu.

Beste alde batetik, inbertsonaletako ageriko argumentu bakarrak, hots, barne-argumentuak, pertsona-murritzapenak ditu, ezin baita ez lehen ez bigarren pertsonakoa izan: hirugarren pertsonakoa izan behar du nahitaz (Euskaltzaindia, 1987; Rodet, 1992; Ortiz de Urbina, 2003; de Rijk, 2008, 279-280. or.; Rezac, 2009, 2016; Fernández eta Berro, 2021; Berro eta beste, 2022; Odria eta beste, 2022). Hala, (5a) egitura inbertsonala ezin daiteke hirugarren pertsonakoa baino izan, baina (5b)ko inkoatiboak ez du pertsona-murritzapenik eta, beraz, lehen, bigarren edo hirugarren pertsonakoa izan daiteke.

- (5) a. Sagarrak bildu dira/(*)gu bildu gara/(*)zuek bildu zarete⁵.
b. Hondoratu da/naiz/zara.

Egitura inbertsonaletan kanpo-argumentu tematiko bat dagoela erakusten du, besteak beste, egileari zuzendutako modifikatzaileak onargarriak izateak (Anagnostopoulou, 2003; Alexiadou eta Anagnostopoulou, 2008; Bhatt eta Pancheva, 2005 beste askoren artean). Esate baterako, *nahita* edo *borondatez* bezalako PSak ezin daitezke agertu kanpo-argumentu batek zilegiztatzan ez baditu —(6a) bezalako egitura iragankor batean Jon da sagarrak nahita edo borondatez biltzen dituen— inbertsonaletan (6b), bestalde, halako modifikatzaileak ager daitezkeenez, horrek pentsarazten digu agerian ez bada ere, kanpo-argumentu inplizitu bat dagoela modifikatzaile horiek kontrolatzen dituen. Aldiz, ez dirudi modifikatzaile berak zilegizta daitezkeenik egitura inkoatiboan (6d), nahiz eta aditz bereko aldaera arazlean (6c) eragozpenik gabe ager daitezkeen. Inkoatiboan halako modifikatzaileak ezin da agertu kanpo-argumenturik ez dagoelako; aldaera arazlean, berriz, kanpo-argumentu bat dagoenez (Jon), modifikatzaile horiek zilegi dira.

- (6) a. Jonek sagarrak nahita/borondatez bildu ditu.
b. Sagarrak nahita/borondatez bildu dira.
c. Jonek itsasontzia nahita/borondatez hondoratu du.
d. (#)Itsasontzia nahita/borondatez hondoratu da.

5. Izartxoaren parentesiaren artean jarri dugu, *bildu* aditza berez lehen edo bigarren pertsonako argumentuekin ager daitekeelako egitura iragangaitzetan, hala nola *bildu gara bildu langile guztiok* aspaldiko kanta ezagunean (ikus Sarasola, 2008-2023). Kasu horretan, baina, egitura ez da inbertsonala, hots, egiturak ez du esan nahi 'jendeak gu bildu gaituenik'. Irakurketa inbertsonalean ez da zilegi ez lehen ez bigarren pertsonako argumenturik.

Esan beharra dago (6d)ko egitura inkoatibotzat ez ezik, inbertsonaltzat ere interpreta litekeela. Hala eginez gero, hots, itsasontzia norbaitek/jendeak hondoratu duela pentsatuko bagenu, orduan bai perpausa gramatikala litzateke.

Gainerakoan, egitura inbertsonaletan kanpo-argumentu implizitu hori sintaxian indarrean dagoela ere aldarrikatu izan dugu, hau da, gure ustez, kanpo-argumentu implizitu hori ez da bakarrik argumentu tematikoa. (6a)ri dagokionez, kanpo-argumentu tematiko bat izateak esan nahi du egile bat dagoela, hau da, sagarrak bildu dituena. Hortaz, kanpo-argumentu tematikoa badugu. Alabaina, horrezaz gain, kanpo-argumentu sintaktikoa ere badago eta bere zeregin sintaktikoak betetzen ditu. Kanpo-argumentu tematikoaren eta sintaktikoaren arteko bereizketa horrek berebiziko garrantzia du gure analisisian, zeren kanpo-argumentu tematiko bat, hots, egile bat izateak ez baitu esan nahi kanpo-argumentu sintaktiko bat dagoenik. Esate baterako, ingelesarena bezalako egitura pasibo batean, kanpo-argumentu tematiko bat dago (egilea), baina ez da kanpo-argumentu sintaktikoa. Izatez, ingelesez egilea PS baten bitartez adieraz daiteke pasiboan. Hortaz, egile bat egoteak (kanpo-argumentu tematiko bat egoteak) ez dakar halabeharrez kanpo-argumentu sintaktiko bat egoterik. Komeni da, beraz, bereizketa hori gogoan izatea bihurkari eta elkarkari irangangaitzez eztabaidatzen dugunean 3. atalean.

Egitura inbertsonalekin segituta, kanpo-argumentua tematikoa izateaz gain, sintaktikoa ere bada. Izan ere, kanpo-argumentu hori sintaxian indarrean ez balego, orduan nekez azal liteke zergatik agertzen diren egitura inbertsonaletan kanpo-argumentu batek zilegitu beharreko osagaiak, hala nola (i) kanpo-argumentuarekin, hots, jabearekin jabetza besterenezinaz harremanetan dauden osagaiak; (ii) kanpo-argumentuari zuzendutako bigarren mailako predikatuak, eta (iii) kanpo-argumentuak kontrolatutako helburuzko perpausak. Horri guztiari dagokionez, kontrako jokabidea erakusten dute inkoatiboek: ez dago kanpo-argumenturik eta, beraz, ezin dira ageri (i), (ii) eta (iii) osagaiak, horiek kanpo-argumentu batek zilegituz gero bakarrik ager baitaitezke. Erakuts dezagun hori jarraian.

Has gaitezen jabetza besterenezineko harremana aztertzen. Beste hainbat hizkuntzatan ikusi denez, determinatzaile-sintagma zehaztuek anaforen antzera jokatzen dute testuinguru batzuetan eta egituran gorago dagoen aitzindari sintaktiko batekin uztardura-harremanean sar daitezke (Guéron, 2006; le Bruyn, 2014, eta lan horietan aipatutako lanak). Esate baterako, (7a) bezalako perpaus iragankor batean, *Jonek* subjektuak *eskua* barne-argumentua uztartzen du eta haren jabe gisa interpretatzen da. Hots, *Jonek* eta *eskua* osagaien artean jabetza besterenezineko harremana ezartzen da, eta harreman horretan lehen osagaiak jabea zein den adierazten du eta bigarrenak, aldiz, jabetza. Bi osagai horien arteko harremana sortzeko, jakina, bi osagaiak sintaktikoki indarrean egon behar dute, alegia, bakoitzak bere sintagma islatu behar du. Inbertsonalei dagokienez, kanpo-argumentu implizitua barne-argumentuaren jabea izan daiteke (7b), eta hortaz, kanpo-argumentua sintaktikoki islatzen dela ondoriozta genezake (Berro, Odria eta Fernández, 2023; ikusi gaztelaniarako MacDonald, 2017, eta Ormazabal eta Romero, 2019).

- (7) a. Jonek eskua altxatu du.
b. Hitza eskatzeko, eskua altxatuko da.

Aldiz, egitura inkoatibo batean ezin liteke halako harremanik eraiki; izan ere, inkoatiboetan argumentu bakarra dago, hots, barne-argumentua. (8a) adibidean ikus daitekeenez, *ilea* barne-argumentua *Jon* argumentuaren jabetza besterenezina dela interpreta liteke, perpausa *orraztu* aditz iragankorrarekin eraiki baita eta bi argumentuak perpaus berean eta sintaktikoki islaturik baitaude. (8b) adibidean, berriz, *ilea* ez da aurreko perpausean agertzen den *Jon* argumentuaren jabetzatza interpretatzen, *ilea* agertzen den perpausean, *erori* aditz inakusatiboa duen horretan, ez baitago aitzindaririk. Balizko aitzindaria —*Jon*— beste perpaus batean dago; hortaz, jabetzarekin batera uztardura-harremana ezartzeko urrunegi.

- (8) a. Jonek ilea orraztu du.
b. Jon etorri da. Ilea erori da.

Bigarrenik, bigarren mailako predikatuak daude. Perpaus batean predikatu nagusiaz gain, hots, aditzaz gain, beste predikatu batzuk ere badaude, hala nola *oinutsik* bezalakoak, eta *bigarren mailako predikatu* deitura dute. Predikatuok kanpo-argumentu sintaktikorik ba ote dagoen erabakitzeko erabili izan dira. Hala, kanpo-argumentu implizituak zilegitzen ditu (9a) eta (9b) egituretako *oinutsik* eta *zutunik* bigarren mailako predikatuak.

- (9) a. Ibaia oinutsik zeharkatzen da.
b. Herriko ereserkia zutunik kantatzen da.

Hots, (9a) perpausean interpretatzen dugu ibaia zeharkatu duela norbaitek eta oinutsik zihoala; (9b) perpausean, bere aldetik, norbaitek herriko ereserkia kantatu duela interpretatzen dugu eta kantatu bitartean zutunik egon dela. Egileari zuzendutako bigarren mailako predikatu bat kontrolatu ahal izateko, egileak sintaktikoki indarrean egon behar du (Collins, 2005; Landau, 2010). Egitura inkoatibo batean, ez dago egile-argumenturik eta, horregatik, barne-argumentuak bakarrik zilegitu lezake bigarren mailako predikatuak. (10) adibidean *hil* aditza erabili dugu egitura iragangaitzean. Gorago esan dugun bezala, *hil* inkoatibo/arazle alternantzia erakusten duen aditza denez, egitura iragangaitza inkoatibo gisa edo inpersonal gisa interpreta daiteke. Interpretazio inpersonalen, *isil-isilik* predikatuak kanpo-argumentua zein barne-argumentua modifika lezake. Interpretazio inkoatiboan, aldiz, barne-argumentuak bakarrik zilegitu lezake *isil-isilik* predikatuak, barne-argumentua baita sintaktikoki eta semantikoki indarrean dagoen argumentu bakarra.

- (10) Armiarmak isil-isilik hiltzen dira.
Inkoatiboan: 'Armiarmak isil-isilik daude hiltzen direnean'.
Inpersonalen: 'Norbait isil-isilik dago armiarmak hiltzen dituenen' ala 'Armiarmak isil-isilik zeuden norbaitek hil dituenen'.

Hirugarren eta azkenik, egitura inpersonalari PRO subjektua duen helburuzko perpaus bat gaineratuz gero, kanpo-argumentu implizituak helburuzko perpausaren subjektu hori kontrolatzeko gaitasuna du (11a). Hori posible izan dadin, kanpo-

argumentu inplizituak sintaktikoki islatu egon behar du (Bhatt eta Pancheva, 2005; Landau, 2010). Egitura inkoatiboa (11b), aldiz, pragmatikoki okerra da horrelako helburuzko perpaus batekin agertuz gero (bitxi samarra da norbait gaixotzea helburu bat lortzeko asmoz).

- (11) a. Itsasontzia hondoratu zen [PRO aseguru kobratzeko].
 b. #Gaixotu da [PRO eskolara ez joateko].

1. taulan jaso ditugu inbertsonalen eta inkoatiboen ezaugarriak elkarren ondoan, bi egituren arteko ezberdintasun esanguratsuak erakusteko.

1. taula. Inbertsonalen eta inkoatiboen arteko konparazioa.

EZAUGARRIAK	INBERTSONALAK	INKOATIBOAK
Barne-argumentua 3. pertsonakoa da halabeharrez	✓	x
Kanpo-argumentu inplizitu bat dago	✓	x
Kanpo-argumentua gizakia da	✓	ezin erabili
Egileari zuzendutako modifikatzaileak zilegi dira	✓	x
Jabetza besterenezineko harremana argumentu inplizituarekin	✓	x
Egileari zuzendutako bigarren mailako predikatuak zilegi dira	✓	x
Helburuzko perpausak kontrola daitezke	✓	x

Atal honetan erakutsi dugu literaturan batetik inbertsonalak eta bestetik inkoatiboak ezaugarritzeko erabili diren irizpideetan aurkako jokabidea erakusten dutela bi egiturek. Izan ere, inbertsonalek kanpo-argumentu tematiko zein sintaktiko bat dute, inkoatiboek ez bezala. Inbertsonalen eta inkoatiboen arteko konparazio sistematiko horrek bihurkari eta elkarkari iragangaitzekin alderatzeko aukera ematen digu orain.

3. Bihurkari eta elkarkari iragangaitzak ezaugarritzen

Egitura bihurkari eta elkarkariez denaz bezainbatean, egitura iragankorrak dira nagusi euskaraz, hots, osagarri gisa anafora bihurkaria (2a) eta anafora elkarkaria (2b) dutenak —adibideok (12a) eta (12b) gisa errepikatu ditugu, hurrenez hurren—. Euskal gramatikan halakoak dira bereziki ikertzaileen arreta bereganatu dutenak (Salaburu, 1986ab; Rebuschi, 1988; Artiagoitia, 2003; Euskaltzaindia, 1985, 2002; azterbide historikorako, ikus baita ere Mounole, 2014 [2018]; Salaberri, 2019, 2020; eta Evseeva eta Salaberri, 2018).

- (12) a. Jonek bere burua ikusi du ispiluan.
 b. Lagunek elkar besarkatu dute.

Horiekin batera, baina, badira bihurkari eta elkarkari iragangaitzak ere —(1a,b) adibideak jaso ditugu berriro (13a,b) gisa—. Egitura horietan, iragankor kanonikoetan ez bezala, ez dago ageriko anafora bihurkari edo elkarkaririk. Hala eta guztiz ere, interpretazio bihurkari edo elkarkaria ematen zaie (Artiagoitia, 2003, 617-618. or. eta 629-630. or.; Etxepare, 2003a, 380-385. or.; Bilbao, 2022ab; Bilbao eta beste, 2022) —diakroniarako, ikus Mounole, 2014 [2018]—.

- (13) a. Jon ispiluan ikusi da.
b. Lagunak besarkatu dira.

(13)ko egitura bihurkari eta elkarkarien ezaugarri morfologikoak aipatu ditugu dagoeneko atarikoan (ageriko argumentu bakarra egotea; absolutibo kasua izatea eta abar). Ezaugarri morfologiko horiek inpersonal nahiz inkoatiboek ere partekatzen dituzte, nahiz eta, erakutsi dugunez, sintaktikoki aurkako jokabidea duten zenbait irizpideri begira. Ikus dezagun, bada, zein den bihurkari eta elkarkari iragangaitzen jokabidea irizpide berak eta beste batzuk erabiliz gero.

3.1. Bihurkari eta elkarkari iragangaitzetako ageriko argumentuen bi rol tematikoez

Inpersonalak inkoatiboetatik bereizteko lehen irizpidea izan da ebaztea ea, ageriko argumentuaz gain, ba ote dagoen kanpo-argumentu inpliziturik. Horrek bi argumentuez eztabaidatzera eraman gaitu: kanpo-argumentu inplizitua du inpersonalak ageriko barne-argumentuaz gain; inkoatiboak, berriz, ageriko barne-argumentua baino ez. Beste alde batetik, bihurkari eta elkarkari iragangaitzek ageriko argumentu bakar bat dute eta, beraz, galdera bera egin daiteke argumentu horren izaerari dagokionez, hots, ea argumentu bakar hori barne-argumentua edo kanpo-argumentua ote den. Galdera hori egitea ez da horren harrigarria kontuan hartzen baldin badugu Perlmutterren (1978) lanaz geroztik argumentu bakarra duten aditzen artean aditz inkusatibo eta inergatiboak bereizten ditugula, hau da, barne-argumentua edo kanpo-argumentua dutenak. Eztabaida hori, bestalde, argumentu bakarreko egituretan ere eman da. Hala, bihurkari eta elkarkari iragangaitzak bezalako egiturez ari direla, ageriko argumentua barne- edo kanpo-argumentua den eztabaidatu da beste hizkuntza batzuen literaturan, hala nola Reinhart eta Siloni (2004, 2005) eta Siloniren (2012) lanetan.

Tematikoki hori ebaztea ez da gauza erraza kontuan hartzen badugu, itxuraz bederen, bihurkari eta elkarkari iragangaitzetako argumentu bakar horrek bi rol tematiko jasotzen dituela, kanpo-argumentuarena bat eta barne-argumentuarena bestea⁶. Esate baterako, (13a) adibidean, Jon da bere burua ikusten duena. Hortaz,

6. Horrek, jakina, arazo teoriko bat ekar dezake teoria zein den. Adibidez, teoria sintaktiko batzuetan, hala nola *Gobernu eta Uztardura Teorian* (Chomsky, 1981), *Theta irizpideak* eragotziko luke argumentu bakarrak bi rol tematiko izatea. Horretaz ohartarazi gintuen Ortiz de Urbinak (1989) aspalditxo. Arazo teoriko horri azalbidea eman zaio bihurkarietarako (Reinhart eta Siloni, 2005) eta elkarkarietarako (Siloni, 2012), eta Bilbaok (2022ab) euskarara ekarri du eztabaida. Nolanahi ere den, beste teoria batzuetan, hala nola Ramchandenen (2004, 2008) *Lehen Faseko Sintaxian* argumentu bakar batek rol tematiko bat baino gehiago izan ditzake. Ramchandek hiru buru sintaktikotan dekonposatzen ditu aditzak ebenturen dekonposatzearekin batera, alegia, *Abiatzea, Prozesua eta Emaizta*, eta buru horietariko bakoitzak bere sintagma sortzen du. Bestalde, sintagma horien espezifikatzailean rol tematiko bat dago: AbiatzeSan

ikustearen esperimintatzailea da eta, aldi berean, gaia. Antzera gertatzen da (13b) adibideko elkarkari iragangaitzean: lagunak dira besarkada ematen dutenak, egileak beraz, baina baita besarkatuak direnak ere, hots, gaiak. Halakorik ez dugu inperzonal eta inkoatiboetan, egitura horietan argumentu bakoitzak bere rol tematikoa baitu (inperzonalatako kanpo-argumentu inplizitua egilea da eta barne-argumentua gaia, *bildu* bezalako aditz iragankor batekin; beste alde batetik, inkoatiboko argumentu bakarra gaia da *hondoratu* aditzarekin). Hurrengo atalean bihurkari eta elkarkari iragangaitzetako ageriko argumentuaren ezaugarriak aztertu ostean, 3.3. eta 3.4. ataletan arakatuko dugu ea egitura horietako ageriko argumentu bakarrak zer izaera ote duen. 3.3. atalean, inperzonal eta inkoatiboak ezaugarritzeko irizpidez baliatuko gara, eta 3.4. atalean, aldiz, irizpide berriak erabiliko ditugu.

3.2. Bihurkari eta elkarkari iragangaitzetako ageriko argumentua, biziduna eta pertsona-murritzapenik gabea

Inperzonal eta inkoatiboetako ageriko argumentuarekiko konparazioan, bihurkari eta elkarkari iragangaitzetako ageriko argumentuaren izaerari dagokionez esan dezakegu ez duela pertsona-murritzapenik. Beraz, argumentu hori lehen, bigarren zein hirugarren pertsonakoa izan daiteke (14c,d), hots, inkoatiboetako ageriko argumentua bezalakoa (14b) eta inperzonalatako ageriko argumentua ez bezalakoa (14a).

- (14) a. *Ni/*zu/hura eramaten *naiz/*zara/da. (inperzonalak)
b. Ni/zu/hura basoan ezkututzen naiz/zara/da. (inkoatiboak)
c. Ni/zu/hura ikusten naiz/zara/da. (bihurkariak)
d. Gu/zuek/haiek besarkatzen gara/zarete/dira. (elkarkariak)

(14)ko adibideetan ikus daitekeenez, konparagai ditugun egituretatik egitura inperzonalak (14a) da ageriko argumentuaren pertsona-murritzapena duen bakarra, nahitaez hirugarren pertsonakoa izan behar baitu, 2. atalean aipatu dugun bezala. Hala, (14a) adibidean lehen pertsonako *ni* eta bigarren pertsonako *zu* izenordainak ez dira gramatikalki inperzonalen barne-argumentu gisa; bai, ordea, hirugarren pertsonako *hura*. Aldiz, bai egitura inkoatiboak (14b) bai egitura bihurkari (14c) eta elkarkari (14d) iragangaitzek ez dute pertsona-murritzapenik erakusten eta, beraz, lehen, bigarren zein hirugarren pertsonako izenordainak onartzen dituzte ageriko argumentu gisa. Egitura inkoatiboan (14b) eta bihurkarian (14c) ageri diren lehen, bigarren eta hirugarren pertsonako izenordainak singularrak dira (*ni*, *zu*, *hura*, hurrenez hurren); egitura elkarkarian (14d), ageriko argumentuak pluralak izan behar du nahitaez (*gu*, *zuek*, *haiek*, hurrenez hurren), interpretazio elkarkaria lortuko bada.

Bestalde, egitura bihurkari eta elkarkarietan pertsona-murritzapenik ez dagoenez, hau da, ageriko argumentua lehen, bigarren eta hirugarren pertsonakoa izan daitekeenez, ez dago murritzapena saihesteko estrategiarik ere, euskal

abiatzaile bat dago; ProZSan *jasaille* bat eta EmaiztaSan *emaitza* bat. Teoria horretan, argumentu bakoitzak espezifikatzaile bat baino gehiago bete ditzake eta, ondorioz, rol tematiko bat baino gehiago ere izan ditzake. Hortaz, Ramchandena bezalako teorian, interpretazio tematikoa gune sintaktikoetatik eratorzen da. Halako teorian bidetik errazago azal liteke beharbada nola izan ditzakeen argumentu berak rol tematiko bat baino gehiago.

inbertsonaletan ikusi eta eztabaidatu den bezala (Ortiz de Urbina, 1988, 2003; Fernández eta Berro, 2021; Berro eta beste, 2022; Odría eta beste, 2022). Izan ere, erakutsi dugun bezala (14a), egitura inbertsonaletan, ageriko argumentua lehen edo bigarren pertsonakoa bada, ezin daiteke absolutibo kasu eta komunztaduraz markatu, baina hizkera jakinetan datibo kasu eta komunztadurarekin marka daiteke (15). Markapen hori pertsona-murritzapena saihesteko estrategiatzat jo izan da.

(15) Niri/zuri ikusten zait/zaizu.

Alabaina, egitura bihurkari eta elkarkarietan pertsona-murritzapenik ez badago, ez dago, ezta ere, bera saihesteko estrategiarik. Ondorioz, (15) bezalako egiturak ezin daitezke inongo hizkeratan ez bihurkari ez elkarkari iragangaitzat hartu (ezta inkoatibotzat ere). (15) inbertsonala baino ezin daitezke izan (hala onesten den hizkeretan).

Beste alde batetik, bihurkari eta elkarkari iragangaitzetako ageriko argumentu horrek biziduna izan behar du (ez nahitaez gizakia) —bizigabeak egitura horietatik kanpo gelditzen baitira—. Hala, Zuñiga eta Kittiläk (2019, 158. or.) diotenez, hizkuntzen tipologiari erreparatuz gero, hizkuntza batzuetan biziduntasunak garrantzia du egitura bihurkariak eraikitzean. Adibidez, mandarinak aitzindari bizidunak baino ez ditu onartzen egitura bihurkarietan (Zuñiga eta Kittilä, 2019, 158. or.). Orobat, euskarazko egitura elkarkarietan ere biziduntasuna erabakigarria dela dirudi. Siloniren (2012) arabera, aditz batek egile-rola duen argumentu bat eskatzen badu, argumentu bizidunekin baino ez da lortuko irakurketa elkarkaria. Jokabide hori erakusten du, adibidez, *jo* aditzak (16).

(16) a. Haizea dagoenean, zuhaitzetako abarrek elkar jotzen dute.

b. *Haizea dagoenean, zuhaitzetako abarrak jotzen dira.

(16a) adibideak irakurketa elkarkaria onartzen du, *elkar* anafora elkarkaria erabiliz. Aldiz, (16b)ko egiturak ezin du interpretazio elkarkaria izan, elkarkari iragangaitzen itxura morfologikoa izanagatik ere. Izan ere, ageriko argumentu bakarra, hots, *zuhaitzetako abarrak*, bizigabea da. Hala, (16b) perpausaren irakurketa bakarra, zilegi balitz behintzat (pragmatikoki ez dirudi-eta oso onargarria denik), inbertsonala litzateke.

3.3. Bihurkari eta elkarkari iragangaitzak: kanpo-argumentua eztabaidagai

Gorago (2. atalean) adierazi dugu kanpo-argumentu tematiko eta sintaktikoa bereizi behar ditugula egitura inbertsonal eta inkoatiboak behar bezala ezaugarritzeko. Hala, kanpo-argumentu sintaktikorik ba ote dagoen erabakitzeke bigarren mailako predikatuen zilegitzea edo helburuzko perpausen kontrola baliatu ditugu, besteak beste. Alabaina, bihurkari eta elkarkari iragangaitzen kasuan irizpide horiek erabiliz kanpo-argumentu hori sintaktikoki indarrean dagoela erakustea nekezagoa gerta daitekeelakoan gaude. Izan ere, azken egitura horietan, kanpo- zein barne-argumentuak erreferentziakideak dira. Adibidez, egitura bihurkari iragangaitzaz baliatu eta *ispiluan ikusten naiz* esaten denean, esperimantatzailea (ikusten duena) zein gaia (ikusten dena) pertsona bera da (horregatik diogu erreferentziakideak

direla). Hortaz, izatez ageriko argumentua barne-argumentu sintaktikoa izan liteke (eta ez kanpo-argumentua), baina kanpo-argumentuaren erreferentziakidea izaki, sintaktikoki indarrean dagoen kanpo-argumentu baten jokabide bera izan lezake, eta, ondorioz, egileari zuzendutako bigarren mailako predikatuak zilegitu litzake edo helburuzko perpausak kontrolatu. Horregatik, ageriko argumentua nolakoa den adierazteko irizpide horiek balia ditzakegun arren, aurreikusten dugu ez direla erabakigarriak izango bihurkari eta elkarkari iragangaitzen kanpo-argumentu sintaktikoaren auzian.

Lehenik eta behin, egileari zuzendutako modifikatzaileekin duten jokabideari erreparatuko diogu. Inpersonalek bezalaxe, bihurkari (17a) eta elkarkari (17b) iragangaitzek ere egileari zuzendutako *nahita* eta *borondatez* modifikatzaileak onartzen dituzte. Horrek adierazten du kanpo-argumentu tematiko bat egon badagoela egiturotan, modifikatzaileak kanpo-argumentu tematiko horri zuzentzen baitzaizkio.

- (17) a. Jon nahita/borondatez bota da balkoitik.
- b. Lagunak nahita/borondatez besarkatu dira.

Adibideotan, *nahita* eta *borondatez* modifikatzaileak *Jon* (17a) eta *lagunak* (17b) norbanakoei zuzenduta daude. Horrek erakusten du, batetik, perpaus horietan kanpo-argumentu bat badagoela, eta bestetik, ageriko argumentua kanpo-argumentu bezala interpretatzen dela tematikoki.

Hala ere, esan berri dugun bezala, bihurkari eta elkarkari iragangaitzetako kanpo- eta barne-argumentuak erreferentziakideak dira eta, ondorioz, biek ala biek ageriko argumentuari egiten diote erreferentzia. Horregatik, *nahita* eta *borondatez* modifikatzaileak ageriko argumentuari zuzenduta egon arren, ezin dugu horretatik ondorioztatu ageriko argumentua tematikoki ez ezik, sintaktikoki ere kanpo-argumentua denik. Izan ere, ageriko argumentua sintaktikoki barne-argumentua izan liteke, baina aldi berean kanpo-argumentuaren erreferentziakidea izanik, egileari zuzendutako modifikatzaileak zilegitu litezke, (17)ko adibideetan bezala.

Bigarrenik, bihurkari (18a) eta elkarkari (18b) iragangaitzek bigarren mailako predikatuak ere onartzen dituzte, hala nola *biluzi*.

- (18) a. Jon biluzi ikusi da ispiluan.
- b. Lagunak biluzi besarkatu dira hondartzan.

(18a) eta (18b) perpausetan, *biluzi* predikatuak ageriko argumentua modifikatzen du, hots, *Jon* eta *lagunak*, hurrenez hurren. Hortaz, ageriko argumentuak zilegitzen du bigarren mailako predikatuak. Nolanahi ere den, lehengo arazo bera dugu: kanpo- eta barne-argumentuak erreferentziakideak direnez, ezin dugu esan ageriko argumentua kanpo-argumentua ala barne-argumentua den sintaktikoki.

Hirugarrenik, bihurkari eta elkarkari iragangaitzen ageriko argumentuak helburuzko perpausen subjektua ere kontrola dezake:

- (19) a. Jon leihotik bota zen PRO aseguria kobratzeko.
b. Lagunak besarkatu dira PRO haserre ez daudela erakusteko.

(19)ko adibideetan, helburuzko perpausak ditugu: *aseguria kobratzeko* (19a) eta *haserre ez daudela erakusteko* (19b). Perpaus horietako PRO subjektua bihurkari eta elkarkari iragangaitzetako ageriko argumentuek kontrola dezakete, hau da, *Jon* (19a) eta *lagunak* (19b) argumentuek. Hala, (19a)n Jon da aseguria kobratu nahi duena eta (19b)n lagunak dira haserre ez daudela erakutsi nahi dutenak. Bhatt eta Panchevak (2005, 4. or.) dioten bezala, PRO argumentua egile batek kontrolatu behar badu, orduan badirudi bihurkari eta elkarkari iragangaitzetan kanpo-argumentua tematikoki behintzat egon badagoela.

Azkenik, jabetza besterenezineko harremana aztertuko dugu. Horretarako, egitura ditransitiboeri erreparatuko diegu. (20a) bezalako egiturei *zeharkako bihurkari* esan izan zaie literaturan (Zúñiga eta Kitilä, 2019) eta, analogiaz, izendapena elkarkarietara ekarri du Bilbaok (2022ab), (20b) bezalakoei *zeharkako elkarkari* deituaz.

- (20) a. Jonek bere buruari ilea moztu dio.
b. Lagunek elkarri ilea moztu diote.

Anaforadun bihurkari (20a) eta elkarkarian (20b), kanpo-argumentua eta datiboz markatutako anafora erreferentziakideak dira, *Jon* eta *lagunak* baitira bien erreferente, hurrenez hurren. Orobat, *ilea* barne-argumentuak jabetza besterenezina adierazten du subjektuak eta datiboz markatutako anaforak partekatze duten erreferentearekiko, hots, *Jon* (20a) eta *lagunak* (20b) erreferenteekiko. Hala, moztu den ilea Jonena da (20a)n eta lagunena (20b)n.

Zeharkako bihurkari eta elkarkarien kideko iragangaitzak (21)eko adibideetan jaso ditugu:

- (21) a. %Jon ilea moztu da.
b. %Lagunak ilea moztu dira⁷.

Egiturok bi ageriko argumentu dituzte, aurretik aztertutako bihurkari eta elkarkariek ez bezala. Biak absolutiboz markatuta egon arren, kanpo-argumentu tematikoak —hots, *Jon* (21a) eta *lagunak* (21b) argumentuek— bakarrik egiten du komuntadura aditz laguntzailearekin. Aldiz, barne-argumentu tematikoak, hau da, *ilea* determinatzaile-sintagmak ez du komuntadurarik eragiten. Egitura horietan, aditz laguntzailearekin komuntadura erakusten duen argumentua —*Jon* eta *lagunak*— ezkutuko argumentu datibo baten erreferentziakide gisa interpretatzen da, hots, '*bere buruari*' eta '*elkarri*' anaforen erreferentziakide. Hau da, kideko egitura anaforadunetan (20) anaforaren bidez adierazten den erlazio bera dago komuntadura eragiten duen argumentuaren eta ezkutuko argumentu datibodunen

7. Zúñiga eta Kitiläk (2019, 160. or.) diotenez, ageriko argumentua plurala denean, egitura bihurkari eta elkarkarien arteko erlazioa estuagoa da eta perpaus berak bi irakurketak onar ditzake. Hain zuzen, perpaus horrek irakurketa elkarkariaz gain, bihurkaria izan dezake, hots, lagun bakoitzak bere buruari ilea moztu ahal izan dio, bata besteari moztu beharrean.

artean. Ezkutuko argumentu datibo horrek ere ez du komunztadurarik erakusten aditzarekin.

Aipatzekoa da (21)eko zeharkako bihurkari eta elkarkari iragangaitzak ez direla onargarriak hiztun askorentzat (Albizu, 2001). Ziurrenik, belaunaldien eta hizkeren artean desberdintasunak antzeman daitezke, eta etorkizuneko ikerketek erakutsiko dute zenbateraino dauden orokortuta halako egiturak hizkuntzan. Dena den, noizean behin entzun daitezke euskara informaleko jardunean, eta, beraz, badirudi hiztun batzuek behintzat ontzat emango lituzketela. Hona, adibidez, egiazko elkarrizketa batean jasotako antzeko adibide bat:

(22) Ez dakizue noraino ebakiko naizen [ilea]. (M.S 2021-11-06)

Kideko anaforadun bihurkari eta elkarkarietan bezalaxe, (21)eko egituretan kanpo-argumentu tematikoak jabetza besterenezineko harremana du *ilea* barne-argumentuarekin. Hala, azken irizpide horrek iradokitzen du kanpo-argumentu tematikoa sintaktikoki ere kanpo-argumentua izan daitekeela, zeharkako bihurkari eta elkarkarietan behintzat. Batetik, egitura horietan barne-argumentu bat badagoelako, *ilea* alegia. Bestetik, determinatzaile-sintagma horrek gorago dagoen aitzindari sintaktiko batekin uztardura-harremanean egon behar duelako jabetza besterenezineko harremana egon dadin, aurretik erakutsi dugun bezala. Hortaz, (21)eko adibideek erakusten dute *Jon* eta *lagunak* determinatzaile-sintagmek gorago egon behar dutela *ilea* barne-argumentua baino. Egitura horietan jabetza besterenezineko harremana zilegi denez eta kanpo-argumentuak sintaktikoki barne-argumentuak baino gorago daudenez, pentsatzekoa da hizpide dugun argumentua, hots, kanpo-argumentu tematikoa, sintaktikoki kanpo-argumentua izatea.

Alabaina, azaltzeke geratzen dira hainbat auzi. Adibidez, kanpo-argumentua balitz, morfologiaren aldetik ergatibo kasu eta komunztadura erakustea esperoko genuke, eta ez absolutiboa. Orobat, ez dakigu zenbateraino orokortu daitekeen zeharkako bihurkari eta elkarkarietan ondorioztatutakoa gainerako kasuetara, hots, *bihurkari eta elkarkari zuzenak* deritzenetara —horietan argumentu bakarra baitago—.

Hori ikusita, badirudi ezin dugula zalantzan jarri bihurkari eta elkarkari iragangaitzetan kanpo-argumentua badaukagula, inkoatiboetan ez bezala. Beste gauza bat da hemendik ondorioztatzea kanpo-argumentu hori sintaktikoki indarrean dagoela, dagoeneko esan dugun bezala, irizpide horiekin behintzat ezin baita erabaki. Hortaz, kanpo-argumentua egon badago, baina ez nahitaez inpersoneletan bezala, kanpo-argumentu sintaktikoa (gogoratu inpersoneletan inplizitua dela kanpo-argumentu hori).

2. taulan laburbildu ditugu bihurkari eta elkarkari iragangaitzen ezaugarriak, aldeztatik inpersoneletan eta inkoatiboak ezaugarritu eta konparatzeko baliaitu ditugun zenbait irizpide erabiliz.

2. taula. Bihurkari eta elkarkari iragangaiztuen ezaugarriak.

EZAUGARRIAK	BIHURKARIAK	ELKARKARIAK
Barne-argumentua 3. pertsonakoa da halaberrez	x	x
Jabetza besterenezineko harremana argumentu inplizituarekin	✓	✓
Egileari zuzendutako modifikatzaileak zilegi dira	✓	✓
Bigarren mailako predikatuak zilegi dira	✓	✓
Helburuzko perpausak zilegi dira	✓	✓

Laburbilduz, tematikoki kanpo-argumentua badagoela ikusi dugun arren, beste irizpide batzuk baliatu beharko ditugu bihurkari eta elkarkari iragangaiztetako ageriko argumentua sintaktikoki kanpo-argumentua edo barne-argumentua ote den erabakitzeko. Horretan saiatuko gara hurrengo atalean.

3.4. Bihurkari eta elkarkari iragangaiztetako ageriko argumentua: kanpo- edo barne-argumentua?

Honaino helduta, argitu gabe geratzen den galdera interesgarri bat da ea bihurkari eta elkarkari iragangaiztetako ageriko argumentua sintaktikoki kanpo-argumentua edo barne-argumentua ote den, 3.2. atalean dagoeneko aurreratu dugun bezala. Hori jakinez gero, orduan (13a) eta (13b) egiturak inakusatibo edo inergatiboak (Perlmutter, 1978, 1989; Burzio, 1981, 1986) ote diren erabaki genezake. Jo dezagun ageriko argumentu hori barne-argumentua dela, inpersonaletan eta inkoatiboetan den bezala. Hala balitz, (13a) eta (13b) egiturak inakusatiboak lirateke. Izatez, egitura horien itxuraketa morfologikoak inakusatiboak direla pentsaraz liezaguke, inakusatiboen ezaugarriak erakusten baitituzte kasu-ezarketari, aditz laguntzailearen hautaketari eta komunztadurari dagokienez behintzat: absolutibo kasua jasotzen du argumentuak, *izan* hautatzen da eta absolutibo-komunztadura erakusten du laguntzaile horrek absolutibo-argumentuarekin (Bilbao, 2022ab). Beste alde batetik, inergatiboak balira, printzipioz espero genezake argumentu bakarrak ergatibo kasua jasotzea, ***edun* aditz laguntzailea hautatzea eta horrek ergatibo-komunztadura erakustea argumentu bakarrarekin. Alabaina, ez dirudi (13a) eta (13b) egiturek inergatiboen ezaugarriok dituztenik.

Bestalde, esan beharra dago aditz laguntzailearen hautaketa inakusatibo eta inergatiboak bereizteko irizpide sintaktikotzat hartu izan dela bi aditz mota horiek bereizi dituzten lanetan. Hala, ingelesezko BE eta HAVE aditzen ordainen arteko alternantzia erakusten duten hizkuntzetan, hala nola italieraz (*essere/avere*), alemanez (*sein/haben*) edo nederlanderaz (*zijn/hebben*), aditz inakusatiboek BE hautatzen dute eta inergatiboek, berriz, HAVE (Burzio, 1986; Legendre, 2007; McFadden, 2007; Aranovich, 2007). Hortaz, banaketa horretara begira, berretsiko genuke (13a) eta (13b) egiturak inakusatiboak direla eta ez inergatiboak.

Gainerakoan, euskara hizkuntza ergatiboa ez ezik, *ergatibotasun erdibitua* edo *subjektu erdibitua* duen hizkuntza ere badenez (Ortiz de Urbina, 1989; Dixon, 1991), ergatibo kasua agertzea inergatiboak izatearekin lot daiteke eta absolutiboa ezartzea, berriz, inakusatiboekin. Hortaz, guk morfologikotzat jo ditugun irizpideok beharbada irizpide sintaktikotzat ere jo litezke (eta ikusten dugunez, halaxe jo izan dira). Dena dela, nahiago genuke, orain arte bezala, aditz laguntzailearen hautaketa edo kasu-ezarketa ez bezalako irizpideez baliatu argumentua kanpo-edo barne-argumentua ote den erabakitzeko. Izan ere, inpersonalak bezalako egitura morfologikoki iragangaitzek erakutsi digute sintaktikoki oso bestelako egitura sintaktikoa ezkuta dezaketela⁸. Bestalde, inergatiboen itxura ere ez da bat bakarra euskaraz, literaturan luzaz eztabaidatu izan den bezala, eta aditz inergatibo batzuek (13a,b) bezalako egitura ere erakutsi lezakete, *mintzatu* aditzak adibidez (Levin, 1983; Oihartzabal, 1992; Fernández, 1997; Alday, 2006, 2009; Berro, 2010, 2012; Pineda eta Berro, 2020). Hortaz, beste irizpide batzuk aztertu beharko genituzke, (13a,b) inergatibo edo inakusatibotzat hartzeko; hona zenbaiten gaineko eztabaida —inakusatibotasunari buruzko diagnostikoetarako, ikus Perlmutter (1978), Burzio (1986), Levin eta Rappaport Hovav (1995, 2005); Kuno eta Takami (2004) beste batzuen artean; Alexiadou, Anagnostopoulou eta Everaert (2004) berrikusketa baterako—.

3.4.1. Partitiboz markatzea

Partitiboak dituen askotariko ezaugarrietatik bat da barne-argumentuek jaso dezaketela, ez, aldiz, kanpo-argumentuek (Levin, 1983; Ortiz de Urbina, 1989; Salaburu, 1992; Pineda eta Berro, 2020) (euskararen partitiboaren azterketarako, ikus de Rijk, 1972, 1996; Etxepare, 2003b; Etxeberria, 2010, 2014, 2021)⁹. Horri dagokionez, berdin jokatzan dute aditz iragankorreko osagarriak nahiz aditz inakusatiboetako argumentu bakarrak (23).

(23) a. Anek ez du garagardorik edan.

b. Bilerara ez da irakaslerik etorri. (Etxeberria, 2014, 75. or.; 2021, 338. or.)

Aldiz, aditz iragankorreko kanpo-argumentuak (24) eta aditz inergatiboko argumentu bakarrak (25) ezin dute partitiborik jaso eta, hortaz, aurrekoekiko asimetria erakusten dute¹⁰.

8. Euskararen inpersonalak, itxura morfologiko iragangaitza izan arren, sintaktikoki iragankorrak direla erakutsi dugu gure beste lan batzuetan. Izatez, Blevinsek (2003) tipifikatutako *subjektu ezabatuko inpersonalak* izateko, eragozpen bakarra (baldin eta eragozpena bada), iragangaiztasun morfologikoa da, aditz laguntzailearen hautaketan islatzen dena, besteak beste —horri dagokionez, ikus Fernández, Berro eta Pérez Saldanya (onartua) katalanarekiko konparazioan—.

9. Italiara bezalako hizkuntzetan, *ne* partikularen bitartez klitikitzen da partitiboa. Aditz iragankorreko barne-argumentuak zein inakusatiboetako argumentu bakarrak *ne* klitikitzea onesten dute; ez, aldiz, inergatiboek: (i) *ne arrivano molti* 'haietariko asko heldu ziren' vs (ii) **ne telefonano molti* ('haietako askok telefonoz deitu zuten' adierazi nahian) (Belletti eta Rizzi, 1981; Burzio, 1986; Perlmutter, 1989). Aldeak alde, irizpide hori baliatu da, beraz, inakusatibotasunaren literaturan inakusatibo eta inergatiboen arteko bereizketarako.

10. Badira itxuraz bestela joka lezaketzen inergatiboak, hala nola *mintzatu* (eztabaidarako eta analisi baterako, ikus Pineda eta Berro, 2020).

- (24) a. Katuak sagua jan du.
 b. *Katurik sagua jan du.
 c. *Katurik ez du sagua jan. (Etxeberria, 2021, 338. or.)
- (25) a. Makinak funtzionatzen du.
 b. *Makinarik ez du funtzionatzen.
 c. Izarrak distiratzen du.
 d. *Izarrik ez du distiratzen.

Ikus dezagun, beraz, bihurkari eta elkarkarietako argumentu bakarrak partitiboa erakuts dezakeen edo ez. Esan beharra dago irizpide hori ezin dugula erabili lehen eta bigarren pertsonako argumentuekin, partitiboak printzipioz erreferentzia zehaztugabeko osagaiak markatzen baititu (de Rijk, 1996; Etxeberria, 2014, 76. or. eztabaidarako). Hortaz, ez dugu espero *ni* edo *gu* bezalako pertsona izenordainekin aurkitzea. Inon izanez gero, hirugarren pertsonako argumentuekin aurkitzea espero genezake, baldin eta egitura bihurkari eta elkarkari iragangaitzek inakusatiboetako jokabide bera balute. Alabaina, ez dirudi hirugarren pertsonakoa izanik egitura horietako ageriko argumentu bakarra partitiboz marka daitekeenik: hala markatuz gero, orduan ezin liteke irakurketa bihurkari edo elkarkaririk erdietsi; irakurketa posible bakarra inpertsonala litzateke (26).

- (26) a. (*)Umerik ez da ikusi.
 b. (*)Lagunik ez da besarkatu.

Interesgarriro, itxuraz, jokabide bera dute *berezko bihurkariak* (ing. *inherently reflexives*) eta *berezko elkarkariak* (ing. *inherently reciprocals*). Berezko bihurkariak dira, esate baterako, *garbitu* edo *jantzi* aditzak (Etxepare, 2003a, 383. or.). Halako aditzek berezkoa dute interpretazio bihurkaria eta ez dute anafora bihurkariaren beharrik. Antzera gertatzen da *elkartu*, *ezkondu* edo *batzartu* aditzekin (Bilbao, 2022ab): berezkoa dute interpretazio elkarkaria eta ez dute, beraz, anafora elkarkaria eskatzen. Bada, halako aditzetako argumentua partitiboz markatuz gero, ezin daiteke interpretazio bihurkari edo elkarkaririk erdietsi; irakurketa posible bakarra inpertsonala da.

- (27) a. (*)Umerik ez da garbitu.
 b. (*)Lagunik ez da ezkondu.

Ondorioz, irizpide horretan oinarrituz esan daiteke egitura bihurkari eta elkarkarien argumentu bakarra ez dela barne-argumentua, kanpo-argumentua baino. Argumentu horrek aditz iragankorreko kanpo-argumentuak (24b,c) eta aditz inergatiboko kanpo-argumentuak (25b,d) bezala jokatzen du partitiboz markatzeari dagokionez.

3.4.2. *Erlatibozko perpaus murriztuen subjektua*

Barne- eta kanpo-argumentuak bereizteko literaturan erabili izan den beste irizpide bat dugu erlatibozko perpaus murriztuen subjektua aztertzea. Izan ere, erlatibozko perpaus murriztuen subjektuak barne-argumentua izan behar du (Siloni, 2012). Hortaz, erlatibozko perpaus murriztuen predikatua ezin da aditz inergatibo bat

izan, aditz horien argumentu bakarra kanpo-argumentua delako. Hala da, adibidez, italieraz (Siloni, 2012, 316. or.).

Irizpide hori euskarara ekartzen saiatuko gara jarraian. Euskaraz, erlatibozko perpaus jokatu-gabeak *-ta* edo *-rik(ka)* adberbio-atzizkiei *-ko* erlaziozko atzizkia gehituta sortzen dira (Oihartzabal, 2003, 791. or.)¹¹. Euskaraz ere, erlatibozko perpaus jokatu-gabeak aditz inakusatiboak onartzen ditu predikatu gisa, *etorri* adibidez (28a). Aditz horien subjektua barne-argumentua denez, euskarak italierak bezala jokatzen du auzi horri dagokionez. Alabaina, kanpo-argumentuari dagokionez, gauzak ez dira horren argiak euskaraz. Batetik, *eskiatu* bezalako predikatu inergatibo bat erabiliz gero, perpausa ezinezko gertatzen da (28b). Aditz horren argumentu bakarra kanpo-argumentua denez, badirudi italieraren antzeko jokabidea duela euskarak ere.

- (28) a. Atzo etorritako/etorriri(ka)ko gizona altua da.
b. *Atzo eskiatutako/eskiaturi(ka)ko gizona altua da.
c. ?Atzo negar egindako/egini(ka)ko gizona altua da.
d. Atzo kontzertua ikusitako/ikusiri(ka)ko gizona altua da.
e. Atzo ikusitako/ikusiri(ka)ko gizona altua da.

Hala ere, *IS+egin* motako predikatu inergatiboekin, *negar egin* esate baterako, ez-gramatikaltasuna ez da horren argia (28c). Nahiz eta predikatu horien argumentu bakarra, *eskiaturen* kasuan bezala, kanpo-argumentua den, iruditzen zaigu (28b) onargariago gerta daitekeela (28c) baino. Orobat, predikatu iragankorretako kanpo-argumentuak ere erlatibiza daitezke euskaraz (28d), italieraz ez bezala. Hala da, bereziki, barne-argumentua esplizituki ageri duten perpausetan. Aldiz, barne-argumenturik ageri ez denean, perpausa ambigua da Oihartzabalen (2003b, 791-792. or.) arabera. Hala, (28e) perpausa ambigua da, *gizona* kanpo-argumentutzat zein barne-argumentutzat interpreta baitaiteke, hots, gizona izan daiteke ikusi duena zein ikusia izan dena. Lehen interpretazioan, barne-argumentu inplizitu bat legoke, bigarrean ez bezala.

Nolanahi ere, bigarren irakurketa, hots, barne-argumentua erlatibozkoaren subjektu delako irakurketa, errazago lortzen da Oihartzabalen (2003b, 792. or.) esanetan. Are gehiago, lehen interpretazioa erdieste zaila bide da hiztun askorentzat, testuinguru egokirik ezean. Hortaz, beste barne-argumentu espliziturik ezean, erlatibozko perpaus jokatu-gabeen subjektua barne-argumentutzat interpretatu ohi da.

Aurretik aipatutakoa bihurkari eta elkarkari iragangaitzeta ekarrita, badirudi egiturek predikatu inergatiboek bezala jokatzen dutela erlatibozkoei dagokienez (29a,b):

- (29) a. (*)Atzo ispiluan ikusitako/ikusiri(ka)ko gizona altua da.
b. (*)Atzo kalean ikusitako/ikusiri(ka)ko gizonak altuak dira.

Ez dirudi (29)ko adibideak bihurkari eta elkarkari gisa uler daitezkeenik. Hau da, (29a) adibidean, gizonak ez du bere burua ikusi; orobat, (29b) adibidean, gizonak

11. Atzizkiek banaketa dialektal desberdina erakusten dute. Partitibo-markarekin, *-rikako* sortzen da nafar-lapurteraz, *-riko*, berriz, bizkaieraz. Bestalde, *-tako* dugu mendebaldeko eta bereziki Gipuzkoako hizkeretan erabiltzen den atzizkia (Oihartzabal, 2003, 791. or.).

ez dute kalean elkar ikusi. Beraz, (28b) adibidean bezala, bihurkari eta elkarkari iragangaitzetako argumentu bakarra ezin da erlatibozko perpaus jokatu gabeen subjektu izan. Perpaus mota horien subjektu izatea onartzen ez duten argumentuak predikatu inergatiboetako argumentuak direnez, hots, kanpo-argumentuak, irizpide honek ere aurretik aipatutako ondorioerantz garamatza, hau da, bihurkari eta elkarkari iragangaitzetako argumentu bakarra kanpo-argumentua dela pentsatzerantz.

Jakina, gauzak guztiz bestelakoak dira anafora bihurkari eta elkarkari baten bidez bihurkari eta elkarkari iragankorrak sortuz gero (30):

- (30) a. Atzo ispiluan bere burua ikusitako gizona altua da.
- b. Atzo kalean elkar ikusitako gizonak altuak dira.

Kasu horietan, barne-argumentu esplizitua duten predikatu iragankorrek bezalaxe jokatzan dute egitura bihurkari eta elkarkariek, eta *gizona* kanpo-argumentutzat hartzen da.

Horrez gain, aipatzekoa da (29)ko adibideak ez direla ez-gramatikalak; aitzitik, interpretazio inpersonala izan dezakete. Hau da, (29a,b) adibideetan, norbaitek ispiluan ikusitako gizona edo norbaitek kalean ikusitako gizonak altuak direla uler dezakegu, hurrenez hurren. Hori ez da harrigarria, kontuan hartuz gero inpersonaletako ageriko argumentu bakarra barne-argumentua dela, eta itulieraz bezala euskaraz ere, barne-argumentuek ez dutela inongo murriztapenik erakusten erlatibozko perpauson subjektu izateko.

Hortaz, irizpide honek iradokitzen du, aurreko irizpideekin bat eginez, bihurkari eta elkarkari iragangaitzek kanpo-argumentu bat dutela sintaktikoki indarrean, predikatu inergatiboek bezala. Hala ez balitz, predikatu inakusatiboek bezala jokatzea eta bihurkari eta elkarkari iragangaitzetako ageriko argumentua erlatibozko perpaus murriztuen subjektu modura agertu ahal izatea esperoko genuke.

3.4.3. *Inergatiboen gaineko inpersonalak*

Inakusatibotasunaren literaturan, nederlandera bezalako hizkuntzen *inpersonal pasiboak* ere aztertu izan dira hastapeneko lanetatik inakusatiboak inergatiboetatik bereizteko (Perlmutter, 1978). Egitura horiek ezin daitezke aditz inergatiboen gainean baino eraiki (inakusatiboak ez dira zilegi). Perlmutterrek darabilen *inpersonal pasibo* deituraren ordean, *inpersonal* deritzegu guk halako egiturei, nahiz eta inpersonal honetan ageri den aditza inergatiboa den. Alabaina, euskaraz ageriko argumenturik ez duten inpersonaletan bi eratako aditzak ager daitezke: bai inergatiboak (31a) bai inakusatiboak (31b), nahiz eta inakusatiboen gainean eraikitzen direnek murriztapenak erakusten dituzten (Rodet, 1992; Ortiz de Urbina, 2003; Fernández eta Berro, 2021).

- (31) a. Garai batean herriko plazan dantzatzen zen.
- b. Hemendik joaten da Bilbora. (Ortiz de Urbina, 2003, 582-583. or.)

Hortaz, ez dirudi irizpide horretan oinarritu gaitzkeenik euskaraz kanpo- eta barne-argumentuen jokabidea bereizteko eta, ondorioz, bihurkari eta elkarkari

iragangaitzen ageriko argumentuaren izaera zein den erabakitzeko. Nolanahi ere den, euskaraz irizpidea erabili ezin den arren, aipatzea merezi duela uste dugu, euskara nederlandera bezalako hizkuntzekin konparatuz gero, aldeak daudela erakusteko.

Azkenik, (1)eko egiturek oro har erakusten duten beste ezaugarri bat da ezin daitezkeela bat bestearen gainean eraiki, hots, delako egitura bat edo bestea izan daitekeela, baina ez aldi berean biak. Esate baterako, *ito* aditzarekin eraikitako (32a) ko egitura inkoatibotzat zein inpertsonaltzat har daiteke. Inkoatiboaren gainean inpertsonal bat eraikitzen saiatzen bagara, baina, emaitza ez da onargarria, edo oso arraroa da behintzat.

- (32) a. Mediterraneo itsasoan jende asko itotzen da.
- b. *?Mediterraneo itsasoan asko itotzen da.

Horrek esan nahi du (1)eko egitura bakoitzak gainerakoak baztertzen dituela. Hau ezin da, jakina, egitura guztietara orokortu. Esate baterako, aplikatiboak eta inpertsonalak konbina daitezke euskaraz (Fernández eta Berro, 2021) edo arazleak eta inpertsonalak (Berro eta beste, 2023). Alabaina, itxuraz behintzat ezin daiteke egitura iragangaiztu baten gainean beste egitura iragangaizturik eraiki.

3.4.4. Ataleko ondorioak

Egitura inakusatiboak eta inergatiboak bereizteko literaturan erabili diren bi irizpide erabili ahal izan ditugu bihurkari eta elkarkari iragangaitzekin: partitiboz markatzea eta erlatibozko perpaus murriztuen subjektua izatea. Lehenengoari dagokionez, egitura bihurkari eta elkarkari iragangaitzetako ageriko argumentuak ez du partitiboz markatzea onartzen, perpaus inergatiboen jokabide bera erakutsiz. Bigarren irizpideari dagokionez, berriz, erakutsi dugu bihurkari eta elkarkari iragangaitzetako ageriko argumentu bakarra ezin dela erlatibozko perpaus jokatugabe baten subjektu izan. Horrek guztiak pentsatzera garamatza egitura bihurkari eta elkarkari iragangaitzetako ageriko argumentua kanpo-argumentua dela sintaktikoki, eta, ondorioz, egitura inergatiboak direla.

3. taula. Bihurkari eta elkarkari iragangaiztuen ezaugarriak.

EZAUGARRIAK	BIHURKARIAK	ELKARKARIAK
Partitiboz markatzea	X	X
Erlatibozko perpaus murriztuen subjektua	X	X
Inergatiboen gaineko inpertsonalak	ezin erabili	ezin erabili

Hain zuzen ere, beste hizkuntza batzuetan oinarrituta, hala nola hizkuntza erromantzeak, hebreera, errusiera edo ingelesa besteak beste, Reinhart eta Silonik (2004) bihurkarietarako eta Silonik (2012) elkarkarietarako analisi inergatiboa proposatu dute. Horretarako, hizkuntza bakoitzean kanpo- eta barne-argumentuek jokabide desberdina erakusten duten ezaugarriak baliatu dituzte. Adibidez,

Silonik (2012) hurrengo irizpideak erabili ditu. Hebreeraz, kanpo-argumentudun perpausak ez dute aditza-subjektua hitz-ordena onartzen, ezta jabe datiboa ere. Gauza bera gertatzen da frantsesez *en* klitikoarekin. Orobat, italieraz erlatibozko perpaus murriztuen subjektua ezin da kanpo-argumentua izan perpaus nagusian partizipio perfektu bat dagoenean, aurretik aipatu bezala. Azkenik, errusieraz kanpo-argumentuek ezin dute genitibo kasua jaso ezezko perpausetan. Hizkuntza horietan, elkarkari iragangaitzen subjektuek kanpo-argumentuen jokaera bera erakusten dute irizpide horiei dagokienez. Ondorioz, egile horiek ere bihurkari eta elkarkari iragangaitzak inergatiboak direla proposatu dute (eztabaidarako, ikus Reinhart eta Siloni, 2004 eta aipamenak).

4. Ondorioak

Lan honetan, bihurkari eta elkarkari iragangaitzak ezaugarritu ditugu egitura inpersonal eta inkoatiboak aztertzeko erabili izan diren irizpideak baliatuz. Lau egitura horiek iragangaitzak dira: argumentu bakarra dute agerian, argumentu horrek absolutibo kasua eta komunztadura erakusten du, eta hautatutako aditz laguntzailea *izan* da. Alabaina, agerian itxura bera izan arren, sintaktikoki egitura desberdinak ezkututzen dituztela erakutsi dugu. Testuinguru batzuetan, bihurkari eta elkarkari iragangaitzek inpersonalarekin bat egiten dute, esate baterako, egileari zuzendutako bigarren mailako predikazioa zilegitu dezakete eta egile horrek jabetza besterenezineko harremana izan dezake perpausoko beste osagai batekin. Nolanahi ere den, ikusi dugunez, test horietatik guztietatik ezin genezake ondorioztatu bihurkari eta elkarkari iragangaitzetan kanpo-argumentua tematikoki ez ezik, sintaktikoki ere indarrean dagoenik, egitura horietan kanpo- eta barne-argumentuak erreferentziakideak baitira. Bestetik, ezaugarri batzuetan bihurkari eta elkarkari iragangaitzek ez dute inpersonalen banaketa bera erakusten. Inpersonaletan ez bezala, bihurkari eta elkarkari iragangaitzen ageriko argumentuak ez du pertsona-murriztapenik erakusten, eta horri dagokionez inkoatiboan antzera jokatzeko dute. Gainera, bihurkari eta elkarkari iragangaitzetan kanpo-argumentuak biziduna izan behar du, inpersonaletako kanpo-argumentuak bezalaxe, baina ez nahitaez gizakia.

Azkenik, aditz inergatiboan eta inakusatiboan literaturan erabilitako test batzuk erabili ditugu, bihurkari eta elkarkari iragangaitzetako ageriko argumentua kanpo-ala barne-argumentua ote den erabakitzeke eta, ondorioz, egiturok inergatiboak ala inakusatiboak diren zehazteke. Horri dagokionez, ikusi dugu bihurkari eta elkarkari iragangaitzek testuinguru batzuetan aditz inergatiboan (edo aditz iragankorren) moduan jokatzeko dutela: ageriko argumentu bakarra ezin da partitiboaz markatu eta ageriko argumentua ezin da erlatibozko perpaus murriztuen subjektua izan —betiere, irizpide batean zein bestean, irakurketa bihurkaria/elkarkaria gorde nahi bada behintzat—. Beraz, irizpide horiek erabiliz bederen, bihurkari eta elkarkari iragangaitzetako ageriko argumentua kanpo-argumentua dela dirudi, eta, ondorioz, egitura horiek inergatiboak direla, beste hizkuntza batzuetarako proposatu den bezala.

Aipamenak

- Albizu, Pablo (2001). Sobre la distribución sintáctica de las formas finitas del verbo vasco: condicionamiento léxico y sintáctico. *ASJUren Gehigarriak*, 35(1), 65-106. <https://doi.org/10.1387/asju.8817>
- Alday, Gontzal (2006). The semantic (i.e. split-intransitive) case-marking system of Western Basque. In Beatriz Fernández eta Itziar Laka (argtz.), *Andolin gogoan: Essays in honour of Professor Eguzkitza* (117-138. or.). UPV/EHU.
- Alday, Gontzal (2009). Is Basque morphologically ergative?: Western Basque vs. Eastern Basque. *Studies in Language*, 33(4), 783-831.
- Alexiadou, Artemis eta Anagnostopoulou, Elena (2008). Structuring participles. In Charles Bond Chang eta Hannah J. Haynie (argtz.), *Proceedings of the WCCFL 26* (33-41. or.). Cascadilla Press.
- Alexiadou, Artemis; Anagnostopoulou, Elena eta Everaert, Martin (2004). Introduction. In Artemis Alexiadou, Elena Anagnostopoulou eta Martin Everaert (argtz.), *The unaccusativity puzzle. Explorations of the syntax-lexicon interface* (1-21. or.). Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/acprof:oso/9780199257652.003.0001>
- Anagnostopoulou, Elena (2003). Participles and Voice. In Artemis Alexiadou, Monika Rathert eta Arnim von Stechow (argtz.), *Perfect explorations* (1-36. or.). Mouton de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110902358.1>
- Aranovich, Raul (2007). *Split auxiliary systems*. John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/tsl.69>
- Artiagoitia, Xabier (2003). Reciprocal and reflexive constructions. In José Ignacio Hualde eta Jon Ortiz de Urbina (argtz.), *A grammar of Basque* (607-632. or.). de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110895285.607>
- Bahrt, Nicklas (2021). *Voice syncretism*. Language Science Press. DOI: 10.5281/zenodo.5948872
- Belletti, Adriana eta Rizzi, Luigi (1988). Psych verbs and θ -theory. *NLLT*, 6, 291-352. <https://www.jstor.org/stable/4047649>
- Berro, Ane (2010). Unergative predicates in Basque varieties: consequences for the ergative case assignment. In Pello Salaburu, Patxi Goenaga eta Ibon Sarasola (argtz.), *Sareko Euskal Gramatika. Basque Grammar Online (SEG). DEA research work*. University of the Basque Country (UPV/EHU). https://www.ehu.es/seg/_media/morf/5/12/2/1/sak/aneberrotesia.pdf
- Berro, Ane (2012). Three levels of root insertion in Basque intransitive verbs. In Ernestina Carrilho eta Beatriz Fernández (argtz.), *Journal of Portuguese Linguistics. Special Issue*, 11(1), Edições Colibri - Universidade de Lisboa, 7-22. https://basqueandbeyond.ehu.es/pdf/JPL_Berro_final.pdf
- Berro, Ane; Oihartzabal, Beñat eta Fernández, Beatriz (2018). Inkoatibo/arazle alternantzia euskaraz eratorzen. In Beatriz Fernández eta Ane Berro (argtz.), *Euskaratik giza hizkuntzara. Jon Ortiz de Urbinari gorazarre. Fontes Linguae Vasconum*, 126, 99-122. Nafarroako Gobernua. <https://doi.org/10.35462/FLV126.4>
- Berro, Ane eta Fernández, Beatriz (2019). (Euskal) Bozak: erdikoak, inkoatiboak eta arazoleak. In Itziar Laka (argtz.), *Hitzak sarean. Pello Salabururi esker onez* (39-50. or.). UPV/EHU.
- Berro, Ane; Odria, Ane eta Fernández, Beatriz (2022). Person matters in impersonality. *Syntax*, 25(2), 147-187. <https://doi.org/10.1111/synt.12230>
- Berro, Ane; Odria, Ane eta Fernández, Beatriz (2023). *Indirect causatives in Basque: the syntax of implicit causers and causees* [eskuizkribua]. Deustuko Unibertsitatea eta UPV/EHU.

- Bhatt, Rajesh eta Pancheva, Roumyana (2005). Implicit arguments. In Martin Everaert eta Henk Van Riemsdijk (argtz.), *The Blackwell Companion to Syntax* (558-588. or.). 3. Blackwell Publishing.
- Bilbao, Kristina (2022a). *Euskarazko elkarkari iragangaizak: lexikoak ala sintaktikoak? (ez baita gauza bera ikusi gara eta ezkondu gara)*. Gradu Amaierako Lana. UPV/EHU.
- Bilbao, Kristina (2022b). Euskarazko elkarkari iragangaizak: lexikoak ala sintaktikoak? *Fontes Linguae Vasconum*, 134, 337-373. <https://doi.org/10.35462/flv134.3>
- Bilbao, Kristina; Berro, Ane eta Fernández, Beatriz (2022). Inkoatibo/arazleak, bihurkari eta elkarkariak eta beste (alegiatzko solasaldiak egitura iragangaiztuez). In Alexander Iribar eta Irene Barberia (argtz.), *Papers on Basque Linguistics in Honor of Jon Andoni Franco Elorza* (127-146. or.). Deustuko Unibertsitatea.
- Blevins, James (2003). Passives and impersonals. *Journal of Linguistics*, 39(3), 473-520. <https://www.jstor.org/stable/4176832>
- Bruyn, Bert le (2014). Inalienable possession. The status of the article. In Ana Aguilar-Guevara, Bert Le Bruyn eta Joost Zwarts, *Weak referentiality* (311-334. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/la.219.13bru>
- Burzio, Luigi (1981). *Intransitive verbs and Italian auxiliaries*. PhD Thesis. Massachusetts Institute of Technology, Dept. of Linguistics and Philosophy. <http://dspace.mit.edu/handle/1721.1/15849>
- Burzio, Luigi (1986). *Italian Syntax. A Government-Binding Approach*, Studies in Natural Language and Linguistic Theory (1), Springer. <https://doi.org/10.1007/978-94-009-4522-7>
- Chomsky, Noam (1981). *Lectures on Government and Binding: The Pisa lectures*. Foris.
- Collins, Chris (2005). A smuggling approach to the passive in English. *Syntax*, 8, 81-120. <https://doi.org/10.1111/j.1467-9612.2005.00076.x>
- Dixon, Robert (1991). *A new approach to English grammar, on semantic principles*. Oxford University Press. <https://doi.org/10.1017/S0022226700000104>
- Etxeberria, Urtzi (2010). -A, -ak eta -(r)ik euskal hizkeretan zehar. In Beatriz Fernández, Pablo Albizu eta Ricardo Etxepare (argtz.), *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai* (65-83. or.). ASJUren Gehigarriak LII.
- Etxeberria, Urtzi (2014). Basque nominal: from a system with bare nouns to a system without. In Ana Aguilar-Guevara, Bert Le Bruyn eta Joost Zwarts (argtz.), *Weak referentiality* (335-364. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/la.219.14etx>
- Etxeberria, Urtzi (2021). The partitive marker in Basque, and its relation to bare nouns and the definite article. In Petra Sleeman eta Giuliana Giusti (argtz.), *Partitive determiners, partitive pronouns and partitive case* (319-356. or.). De Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110732221-010>
- Etxepare, Ricardo (2003a). Reflexives and reciprocals. In José Ignacio Hualde eta Jon Ortiz de Urbina (argtz.), *A Grammar of Basque* (380-385. or.). de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110895285.363>
- Etxepare, Ricardo (2003b): Negation. In José Ignacio Hualde eta Jon Ortiz de Urbina (argtz.), *A Grammar of Basque* (387-421. or.). de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110895285.516>
- Euskaltzaindia (1985). *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak* (EGLU) I. Euskaltzaindia [Berrargitalpena: Euskaltzaindia 1991].
- Euskaltzaindia (1987). *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak* (EGLU) II. Euskaltzaindia [Berrargitalpena: Euskaltzaindia 1997].
- Euskaltzaindia (2002). *Euskal Gramatika Laburra: perpaus bakuna* (EGLA). Euskaltzaindia.

- Evseeva, Natalia eta Salaberri, Iker (2018). Grammaticalization of nouns meaning «head» into reflexive markers: a cross-linguistic study. *Linguistic Typology*, 22(3), 385-435. <https://doi.org/10.1515/lingty-2018-0014>
- Fernández, Beatriz (1997). *Egiturazko kasuen erkaketa euskaraz*. UPV/EHU. https://basqueandbeyond.ehu.eus/pdf/Beatriz_Fernandez_1997.pdf
- Fernández, Beatriz eta Berro, Ane (2021). Basque impersonals in comparison. *Linguistics*, 60(4), 1.039-1.101. <https://doi.org/10.1515/ling-2020-0057>
- Fernández, Beatriz; Berro, Ane eta Pérez Saldanya, Manuel (onartua). Connexions bascocatalanes: les impersonals de subjecte suprimit. *Caplletra*.
- Guéron, Jaqueline (2006). Inalienable possession. In Martin Everaert eta Henk van Riemsdijk (argtz.), *The Blackwell companion to syntax* (589-638. or.). Blackwell. <https://doi.org/10.1002/9781118358733.wbsyncom045>
- Kuno, Susumo eta Takami, Ken-ichi (2004). *Functional constraints in grammar: On the unergative-unaccusative distinction [Constructional Approaches to Language 1]*. John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/cal.1>
- Landau, Idan (2010). The explicit syntax of implicit arguments. *Linguistic Inquiry* 41(3), 357-388. <https://www.jstor.org/stable/40926385>
- Legendre, Géraldine (2007). On the typology of auxiliary selection. *Lingua*, 117, 1.522-1.540. <https://doi.org/10.1016/j.lingua.2006.06.005>
- Levin, Beth (1983). Unaccusative Verbs in Basque. *North East Linguistic Society*, 13(1), 129-144. <https://scholarworks.umass.edu/nels/vol13/iss1/12/>
- Levin, Beth eta Rappaport Hovav, Malka (1995). *Unaccusativity: At the syntax-lexical semantics interface*. The MIT Press. <https://hdl.handle.net/2027/heb08443.0001.001>
- Levin, Beth eta Rappaport Hovav, Malka (2005). *Argument realization*. Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9780511610479>
- MacDonald, Jonathan (2017). An Implicit Projected Argument in Spanish Impersonal- and Passive-Se Constructions. *Syntax*, 20(4), 353-383. <https://doi.org/10.1111/synt.12146>
- McFadden, Thomas (2007). Auxiliary selection. *Language and Linguistic Compass*, 1(6), 674-708. <https://doi.org/10.1111/j.1749-818X.2007.00034.x>
- Mounole, Céline (2014 [2018]). *Le verbe basque ancien: étude philologique et diachronique*, ASJU, 48. UPV/EHU. <https://ojs.ehu.eus/index.php/ASJU/article/view/24136/21403>
- Odria, Ane; Berro, Ane eta Fernández, Beatriz (2022). Pertsona murriztapenak ditu inperzonaltasunak: euskararen kasua. *Fontes Linguae Vasconum*, 133, 191-219. <https://doi.org/10.35462/flv133.7>
- Oihartzabal, Beñat (1992). Structural case and inherent case marking: Ergaccusativity in Basque. *Supplements of the International Journal of Basque Linguistics and Philology*, ASJU, 27, 309-342. Gipuzkoako Foru Aldundia. <https://doi.org/10.1387/asju.9402>
- Oihartzabal, Beñat (2003a). Tense, aspect and mood. In José Ignacio Hualde eta Jon Ortiz de Urbina (argtz.), *A Grammar of Basque* (249-284. or.). de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110895285.195>
- Oihartzabal, Beñat (2003b). Relatives. In José Ignacio Hualde eta Jon Ortiz de Urbina (argtz.), *A Grammar of Basque* (762-823. or.). de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110895285.632>
- Oikonomou, Despina eta Alexiadou, Artemis (2022). Voice Syncretism cross-linguistically: The View from Minimalism. *Philosophies*, 7, 19. <https://doi.org/10.3390/philosophies7010019>

- Ormazabal, Javier (2008). Kausatibo aldizkatzeak euskaraz eta inguruko hizkuntzetan. In Xabier Artiagoitia eta Joseba A. Lakarra (argtz.), *Gramatika jaietan Patxi Goenagaren omenez* [ASJUren Gehigarriak, 51] (643-663. or.). <https://doi.org/10.1387/asju.9833>
- Ormazabal, Javier eta Romero, Juan (2019). The formal properties of non paradigmatic SE. *Borealis*, 8, 55-84. <https://doi.org/10.7557/1.8.1.4704>
- Ortiz de Urbina, Jon (1988). Interferentzia sintaktiko berezi batez. In *II. Euskal Mundu-Biltzarra, Euskara Biltzarra. I. atala: hizkuntz deskribapena*, Eusko Jauriaritza.
- Ortiz de Urbina, Jon (1989). *Parameters in the grammar of Basque*. Foris.
- Ortiz de Urbina, Jon (2003). Impersonal clauses. In José Ignacio Hualde eta Jon Ortiz de Urbina (argtz.), *A grammar of Basque* (572-591. or.). de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110895285.572>
- Perlmutter, David (1978). Impersonal passives and the unaccusative hypothesis. *Proceedings of the Fourth Annual Meeting of the Berkeley Linguistics Society*, 4, 157-89. <https://doi.org/10.3765/bls.v4i0.2198>
- Perlmutter, David (1989). Multiattachment and the unaccusative hypothesis: the perfect auxiliary in Italian. *Probus*, 1, 63-119. <https://doi.org/10.1515/prbs.1989.1.1.63>
- Pineda, Anna eta Berro, Ane (2020). Hybrid intransitives in Basque. *Glossa: a journal of general linguistics*, 5(1), 22. <https://doi.org/10.5334/gjgl.824>
- Ramchand, Gillian (2004). First Phase syntax. Draft of the *Workshop on Tense, Aspect and Modality* at GLOW. Thessaloniki.
- Ramchand, Gillian (2008). *Verb Meaning and the Lexicon: A First Phase Syntax*. Cambridge University Press.
- Rebuschi, Georges (1988). Defining the three binding domains in Basque. *ASJU*, 27(1), 232-242. <https://doi.org/10.1387/asju.7965>
- Reinhart, Tania eta Siloni, Tal (2004). Against the Unaccusative Analysis of Reflexives. In Artemis Alexiadou, Elena Anagnostopoulou eta Martin Everaert (artz.), *The Unaccusativity Puzzle: Explorations of the Syntax-Lexicon Interface* (159-180. or.). Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/acprof:oso/9780199257652.003.0007>
- Reinhart, Tania eta Siloni, Tal (2005). The lexicon-syntax parameter: reflexivization and other arity operations. *Linguistic Inquiry*, 36, 389-436. <https://doi.org/10.1162/0024389054396881>
- Rezac, Milan (2009). Person restrictions in Basque intransitives. *Lapurdum*, 13, 305-322. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.2172>
- Rezac, Milan (2016). «Gaps and stopgaps in Basque verb finite agreement. In Beatriz Fernández eta Jon Ortiz de Urbina (argtz.), *Microparameters in the grammar of Basque* (139-192. or.). John Benjamins.
- Rijk, Rudolf P.G. de (1972). Partitive assignment in Basque. *ASJU*, 6, 130-173. <https://ojs.ehu.es/index.php/ASJU/article/view/7363/6575>
- Rijk, Rudolf P.G. de (1996). On the origin of the partitive determiner. *ASJU*, 30, 435-447. <https://ojs.ehu.es/index.php/ASJU/article/view/8635/7803>
- Rijk, Rudolf P.G. de (2008). *Standard Basque: A progressive grammar*. The MIT Press. <https://doi.org/10.7551/mitpress/7444.001.0001>
- Rodet, Ana (1992). Construccions amb lectura arbitrària en basc. *ASJU*, 26, 145-179. <https://ojs.ehu.es/index.php/ASJU/article/view/8287/7449>
- Salaberri, Iker (2019). Euskarazko bihurkarien historiaz: hizkuntza ukipena eta errepikapen gramatikalizazioa. *Euskera*, 64(2, 1), 651-682. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/82705.pdf>

- Salaberri, Iker (2020). Grammaticalization of reflexivity in Basque: a corpus-based diachronic and typological analysis. *Journal of Historical Linguistics*, 10(1), 1-41. <https://doi.org/10.1075/jhl.18036.sal>
- Salaburu, Pello (1986a). Uztardura Teoria. In Patxi Goenaga (argtz.), *Euskal sintaxiaren zenbait arazo* (59-94. or.). UPV/EHU.
- Salaburu, Pello (1986b). La teoría del ligamiento en la lengua vasca. *ASJU*, 20(2), 325-341. <https://ojs.ehu.eus/index.php/ASJU/article/view/7773/6965>
- Salaburu, Pello (1992). Euskara, hizkuntza ergatiboa ote da? In Jean Haritschelhar (argtz.), *Luis Villasanteri omenaldia* (417-433. or.). Euskaltzaindia. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/ikerbilduma/673.pdf>
- Sarasola, Ibon (2008-2023). *Eguno Euskararen Hiztegia*. UPV/EHU. <https://www.ehu.eus/eeh/>
- Siloni, Tal (2012). Reciprocal verbs and symmetry. *Natural Language and Linguistic Theory*, 30(1), 261-320. <https://doi.org/10.1007/s11049-011-9144-2>
- Urrutia, Aritz; Goitia, Beñat eta Artiagoitia, Xabier (2015). Zenbait ohar *bata bestea* anafora elkarkariaren inguruan. In Mari Jose Ezeizabarrena eta Ricardo Gómez (argtz.) *Eridenen du zerzaz kontenta: sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)* (617-643. or.). UPV/EHU.
- Zribi-Hertz, Anne (1982). La construction «se-moyen» du français et son statut dans le triangle: moyen-passif-réfléchi. *Lingvisticae Investigationes*, 6(2), 345-401. <https://doi.org/10.1075/li.6.2.05zri>
- Zúñiga, Fernando eta Kittilä, Seppo (2019). *Grammatical voice*. Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/9781316671399>
- Zúñiga, Fernando eta Fernández, Beatriz (2021). Basque antipassives revisited. In Katarzyna Janic eta Alena Witzlack-Makarevich (argtz.), *Antipassive. Typology, diachrony, and related constructions* (621-640. or.) [Typological Studies in Language 130]. John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/tsl.130.19zun>